



Kaixo, lagunok:

Gogoratuko duzuenez, hil honetan José Luis de la Mata-ren heriotzaren IX. urtemuga beteko da. Egun hori gurekin pasatzeko, Aresoko ERASONEA-DE LA MATAENAN egingo den ekitaldian parte hartzera gonbidatu nahi zaituztegu: [otsailaren 22an, igandean, goizeko 11etan.](#)

2014-2015ko ikasturte honetan zehar, www.joseluisdelamata.com web-orria aberasten ari da Jose Luisen testuak aztertzeko Izargain-DelaMataren Eskolan garatzen ari garen **7. [www Mintegiarekin](#)**

Mintegiaren testuinguruan, Jose Luisek, aurten berriro ere, antzerkira eramango gaitu disfrutatzen. Guztion artean, **Juan Mayorga** egilearen **“Hamelin”** antzezlanean agertzen diren instituzioen eta beren profesionalen jokaerak eta sakoneko ideologiei buruzko azterketari bizitza emango diogu. Gure

gorputzarekin, ahotsarekin, dekoratuekin, musikarekin, harremanekin, mugimenduarekin...egingo dugu. Beraz, gidoia eskuetan izango dugula, irakurketa bizidun eta bateratu honetan gurekin parte hartzera gonbidatuta zaudete.

Ekitaldia bukatu eta gero, mokadu bat hartuko dugu etxean eta, ondoren, bazkari bat egingo dugu. Bazkarira geratu nahi duzuenok, mesedez, esaguzue erantzuna e-mail honetara bidaliz [otsailaren 18a, asteazkena, baino lehen: \[ulumago@hotmail.com\]\(mailto:ulumago@hotmail.com\).](#)

Areson ikusi arte, har itzazue gure agurra eta besarkada.

DE LA MATAENEA
Izargain-Areso
2015eko otsailan

Antzezlan

HAMELIN

Juan Mayorga

